

Itziarko Auzo-Udala

eratzeko proposamena



DEBAKO UDALA

Azken 20 urteetan, behin eta berriro adierazi izan dute itziartarrek autogobernurako nahia. Itziar Herria Sortzen Plataformaren bitartez, Itziar Debatik banandu eta herri izateko ahaleaginean aritu izan dira urte luzez itziartarrak eta Itziar herri izateko ekimenak, %82aren babesare ere jaso zuten bere garaian; edonola ere, nahi horri ateak itxi zitzaizkion 2003ko Foru Arauarekin, herri bihurtzeko, gutxienez 2.500 biztanle behar baitira eta 1.000 inguru ditu Itziarrek. **Espainiako Auzitegi Gorenak 2004ean berretsi egin zuen eta definitiboki atzera bota, Itziar udalerrri bihurtzeko eskaria.**

2009ko urrian, legeak eskaturiko herritarren sinadurak eskuratu eta gainerako tramite guztiak burutu ondoren, Itziar Auzo-Udal bilakatzeko eskaera aurkeztu zuen Debako Udalean Itziar Herria Sortzen Taldeak; Auzo-Udal izateko eskaera hori, Itziar herritarren %64k sinatu zuen.

2009ko abenduan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Itziarren Auzo-Udal bat eratzeko akordioa lortzea eskatu zioten Debako Udalari eta Itziar Herria Sortzen Taldeari, akordio horren bitartez, itziartarren borondatea bideratu eta Debako herriaren interes orokorrak uztartu ahal izateko.

2010eko otsailean, Itziar Auzo-Udal bilakatzeko prozedurari hasiera ematea erabaki zuen Debako Udalak eta adostasun batetara iritsi ahal izateko, Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako ordezkariekin mahai bat osatzea.



Irtenbide adostu bat eman nahi zaio azpaldikoa den auzi bati.

Tokiko Erakunde Txikia eratzeko mahaiak (Itziar Mahaia) egindako ibilbideari esker, Itziar Auzo-Udalaren eskumen, aurrekontu eta baliabideei buruzko adostasuna lortu da Udaleko alderdi guztien artean eta adostasun horren isla da, 2013ko urriaren 9an **Udal Plenoak aho batez onartutako erabakia**; 2003ko Foru Dekretuak eskatutakoari jarraiki, Itziarren Auzo-Udal bat sortzeko hasierako erabakia hartu baitzuen Udal Plenoak.

Azken erabakia hartu aurretik, auzo-batzarrak egin dira eta herritarrek batzar horietan egindako balorazioak eta agerturiko kezak aztertuko dira. Bestalde, Auzo-Udala eratzeko Debako Udalak aho batez onartutako egitasmoaren txostena, Debako Udalean edo Debako Udalaren webgunean (<http://www.deba.net/eu/files/itziarkoauzoudala/informe-justificativo>) kontsulta daiteke eta edozein herritarrek du alegazioak aurkezteko aukera. Herritarrek aurkeztutako alegazioak Itziar Mahaian aztertutakoak izango dira, eta horrez gain, **alegazioak aurkeztu dituzten herritarrekin aurrez aurre hitz egiteko bilerak** ere antolatuko ditu Itziar Mahaia.

Ikuspuntu ezberdinak izanik ekin zioten ibilbideari Itziarko Mahaiko alderdi ezberdinetako ordezkariak, baina Deba udalerrri osoarentzat eta itziartarrentzat irtenbide zuzen eta arrazoizko bat aurkitzeko konpromisoagatik, malgutasun eta zintzotasun handiko jokabidea giltzarria izan da adostasunetara iristeko.

Aspaldikoa den arazo bati, irtenbide adostu bat aurkitu nahi diote Udaleko ordezkari politikoek. Itziarko Mahaian adostutako aurreproiektuak hainbat kezka, zalantza eta zurrumurru sortu ditu herritar batzuen artean; kezka horiei buruzko argipenak azaldu eta Itziarko Mahaian adostutako egitasmoaren berri emateko asmoa du eskuartearen duzun aldizkari honek.

Itziar Auzo-Udal bilakatzeko urratsa emateak, Debako Udalaren deszentralizazio administratibo bat gauzatzea suposatzen du. Auzo Udala da Debako Udalak itziartarren autogobernurako nahiari erantzun egoki bat emateko proposatzen duen formula; udalerrriak bakarria izaten jarraituko du, baita Udalak ere; baina itziartarrei, eskumen batzuetan erabakiak hartzeko autonomia, herritarrentzako zerbitzuetan kudeaketa propioa egiteko modua eta dagozkien baliabideak administratzeko aukera eskaini nahi zaizkie Auzo-Udala eratzearekin. Deszentralizazio prozesua amaitu egingo da, Auzo-Udalareko adostutako eskumen eta baliabideak Debako Udalak Auzo-Udalaren esku jartzen dituenean.

Oinarrizko udal zerbitzuak Itziarren bertan eskaintzeak onura handiak ekarriko dizkie auzotarrei.

Deszentralizaziorako zabalduko espediente honek ez du bide ematen jarraian segregazio prozesu bati hasiera emateko, loturarik gabeko bi prozedura administratibo ezberdin dira. Ondorioz, behin Itziarren Tokiko Entitate deszentralizatu bat eratu eta martxan jarritakoan, proiektu honek bere amaiera izango luke; **ez da Itziartarrek Debarekiko independentzia lortzeko egitasmo bat.**

Udalak Deba jarraituko du izaten, eta udal bat ezaugarritzen duten boteregune garrantzitsuenak Debaren esku jarraituko lukete Auzo Udalaren lur eremuetan.

- Zerga guztiak kobratzen Debako udalak jarraituko luke, eta baita ere, fondo foraletik jasotzen den dirua bere osotasunean Debak jasoko luke.
- Hirigintzan planeamendu orokorrari, obra handien lizentziei eta partzelen segregazioei azken hitza Debako Udalak emango die.
- Kreditu eragiketarako egiteko Debako udalaren baimena beharko litzateke.
- Derrigorrezko desjabetzak egiteko Debako udalarekin adostu beharko da.

Auzo-Udala, elkarlanean, koordinazioan eta adostasunean oinarritzen den figura bat da eta honek guztioi onurak ekarriko dizkigu.

Itziarrek auzoekiko duen zentralidade geografikoa eskaintzen du, eta auzoan bertan ahalik eta zerbitzu publiko gehien eskaini ahal izatea lortu nahi da Auzo-Udalaren bitartez; lehen mailako arrazoi funtzional eta praktikoak daude beraz Auzo-Udala eratzeko: udal trami-teak Itziarren bertan egin ahal izateko aukera eskaini herritarrei, herriko elkarteek edozein ekimen aurrera ateratzeko laguntza administratiboa Auzo-Udaletik jaso ahal izatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak, herri-lanak eta abar. Administrazio zerbitzuak herritarrarengandik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta estuagoa izango da administrazioarekiko lotura. Auzo-Udala tresna egokia izan beharko du, auzotarrek Itziarke erabakietan parte-hartze aktiboa izateko, sortzen diren beharrei, bertatik bertara erantzuteko. Gizarte kohesionatuago bat eta eskura dituen baliabideak hobeto kudeatzeko gai den administrazio eraginkorrago bat ere lortu ahal izango dira.



Autogobernu nahiz erabaki ahalmen handiagoa eta auzo udala osatzen duten biztanleei zerbitzu hobea emateko erronka dira txanponaren bi aldeak.

Eskumenak Auzo-Udala eta Debako Udalaren artean adostutakoak izango dira; oinarrizko eskumenak Debako Udalaren esku jarraituko dute, besteak beste, legeak hala eskatzen duelako. Lur eremu osoan esku hartzeko ahalmen berarekin jarraituko du Debako Udalak, udalerrri mailako egitasmo eta inbertsioak gauzatzerakoan.

Auzo-Udaletik autogobernatu ahal izateak ez du esan nahi dagozkion eskumen eta zerbitzu guztiak kolpetik eskuratu dituenik. Orain onartutako litzatekeena lehenengo faserako jasotzen diren eskumenak dira. Bigarren fasea eta hirugarren fasea, garapen fasea eta kontsolidazio fasea, aurreikuspen bat dira, progresiboki plangintza baten oinarrituta garatuko direnak.

Urtez urte, beharrei eta funtzionamenduari buruzko ebaluazio bat egingo da, eta unean uneko beharren arabera, Auzo Udalaren eskumenak zein neurritan handitu beharko diren adosten joan beharko dira Debako udala eta Auzo Udala.

Auzo-Udalaren lurralde-eremuan eskainiko den zerbitzu mota bakoitza Auzo-Udaletik edo Debako Udaletik kudeatuko den zehazteko, Debako Udalaren gaur egungo organigrama eta zerbitzu-arloen antolaketa hartu dira kontuan. Debako Udalak egun dituen baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu eta gastuak optimizatzeke planteamendu bat landu da.

“Zerbitzuak ez bikoizteko irizpidea erabili da; honela, Auzo-Udaletik zuzenean kudeatutakoak izango dira batzuk, beste asko ordea, Debako Udaletik kudeatuz jarraituko da”.

Eskumen-mota	Debako Udala	Itziarko Auzo-Udala
Zerga bilketa eta aurrekontuaren kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Debako udalak jasoko ditu zerga, tasa, fondo forala, poligonoko diru iturriak, etab. - Aurrekontuaren kudeaketa Debako udalak egingo du, orain arte bezala. 	<ul style="list-style-type: none"> - Debako udalak transferitutako aurrekontua edukiko du.
Itziarko ondarea eta herri ondasunen kudeaketa, mantenua eta zaintza	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerrri osoko ondasun publikoen salerosketa eragiketetarako eskumena. - Konponketa eta mantenu lanak Debako Udalak gaur egun dituen brigadako udal langileekin egingo lirake. Bigarren fasetik aurrera, Auzo-Udalaren langileekin egitea aurreikusten da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Auzo-Udalaren eskumenak: hilerriko zerbitzua, berdeguneak, kale garbiketa, zabor bilketa, festak eta muntaiak, hiri altzariak eta obra txikiak, argiteria publikoa, eraikinen mantenua eta garbiketa eta ur zerbitzua.
Diziplina urbanistikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerrri mailako planeamendu urbanistikoa, lurraren kudeaketa. - Obra handiak eta obra handietarako lizentziak. - Partzelen banaketak. - Etxebizitza berrien eraikuntza baimentzea. - Debako Udalaren hirigintza zerbitzuak erabiltzen jarraituko du Auzo-Udalak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Obra txikiak eta obra txikietarako lizentziak. - Jarduera lizentziak. - Itziarren egin beharreko herri-lan eta inbertsioetarako erabaki-ahalmena. - Etxebizitza berriak sustatzeko ekimena.



Eskumen-mota	Debako Udala	Itziarko Auzo-Udala
<p>Udal eskumeneoak diren bestelako zerbitzu eta egitasmoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola kirolaren antolaketa Debako Udaleko Kirola eta Gazteria Zerbitzutik koordinatuko litzateke. - Euskara: Debako Udaleko euskara arduradunarekin koordinatuta. - Hezkuntza: Auzo-Udala eta Debako Udalaren arteko elkarlana. - Turismoa, ingurumena eta Geoparkea: Turismo zerbitzuetarako, ingurumen zerbitzu teknikoetarako eta Geoparkearen promoziorako diru-baliabideak, Debako Udaletik kudeatuko lirateke. - Gizarte zerbitzuak: Debako Udaleko gizarte zerbitzuen arloko langileekin eskainiko dira Itziarrerako zerbitzuak. - Oinarrizko gizarte zerbitzuak: Auzo-Udala eta Debako Udalaren arteko elkarlana. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura: Kultur jardueren antolaketa, auzoetako jaiak eta Itziarko artxiboa. - Kirola eta gazteria: kirol instalazioen zaintza eta mantenua, eskola kirola, kirol jardueren antolaketa eta gazteei zuzendutako ekintzak. - Euskara eta hezkuntza: udal eskumeneoak diren eta Itziarren eragina duten erabaki guneetan parte hartzeko aukera. - Turismoa, ingurumena eta Geoparkea: erabaki guneetan parte hartzeko aukera. - Gizarte zerbitzuak: oinarrizko gizarte zerbitzuak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, adinekoentzako zerbitzuak eta bestelako gizarte zerbitzuak. - Oinarrizko osasun zerbitzuak: Itziarren eragina duten erabaki guneetan parte hartzeko aukera.
<p>Bestelako udal zerbitzuak, udaltzaingoa eta polizia zerbitzuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hiri segurtasuna, trafikoaren antolaketa eta polizia zerbitzuak: Debako Udaleko Udaltzain agenteekin eta baliabide materialekin eskainiko dira Itziarrerako zerbitzuak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Auzo-Udalaren kudeaketa orokorra eta funtzionamendu administratiboa: udal tramiteak auzotarrek Itziarren bertan egin ahal izateko zerbitzua. - Hiri segurtasuna, trafikoaren antolaketa eta polizia zerbitzuak.
<p>Udalerriz gaindiko erakundeekiko harremanak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Finantziazioa eta kreditu eragiketak: Debako Udalaren baimenarekin egin ahal izango ditu Auzo-Udalak 	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerriz gaindiko erakunde publikoen laguntza eta diru-laguntza programetan parte hartzeko eskumena (Debako Udalarekin koordinatuta) - Finantziazioa lortzeko eta kreditu eragiketak egin ahal izango ditu Debako udaleko baimenarekin.

Auzo Udalarekin, Deba udalerraren barruan landa eremu-koak kontsideratutako auzo guztiei zerbitzu hobekak eskaintzea lortu nahi da. Auzo-Udaletik kudeatu beharreko zerbitzuak, Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itsaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari eta Itziar kaskoko biztanleengana zabaldu nahi dira; horrekin batera, auzo guzti horietako herritarrei autogobernurako eta Itziarri dagozkion baliabideak kudeatzeko autonomia ere ziurtatzen zaie Auzo-Udalaren bitartez.

Landa eremuko auzo bakoitzak berezko ñabardurak dituen arren, funtzionalitate eta harremanen ikuspegitik, eremu fisiko, sozial, ekonomiko eta kultural bakar batean biltzen dira.

Auzo-Udalaren eraginpeko lur-eremua defintzerakoan ordea, irizpide funtzional eta praktikoez ere pisu handia izan dute. Herriz gaindiko entitate bati Itziarrerako zerbitzu bat eskatzen zaionean, eskola bat edo osasun zerbitzuak esaterako, biztanleria ratioak kontuan hartzen dira eta landa eremuko auzo guztiek bat eginda lor daitezkeen zerbitzuak beti izango dira gehiago eta hobekak. Zerbitzu horiek Itziarren eskaintzek bertako biztanleen eta debarren bizi-kalitate orokorra hobetu baino ez dute egiten, biztanle hauek administratiboki debarrak ere izaten jarraitzen duten heinean.

Auzo-Udalaren zerbitzuak Itziarriko auzo guztietara iristea bermatu nahi da. Itziar eta Deba artean lurralde zatiketarik ez da egingo; Auzo-Udalaren zerbitzuak zein auzotara iritsiko diren eta Auzo-Udalaren erabakietan zein auzok parte hartuko duten adostu du Itziarriko Mahaiak.

Auzo-Udaletik kudeatu beharreko zerbitzuen gastuak zein izango diren kontuan hartuta, Debako Udalak urtero Auzo-Udalari egin beharreko diru-transferentziaren zenbatekoa kalkulatu da. 2003ko Foru Arauak eskatzen duenari jarraiki, Debako Udalak Itziarriko Auzo-Udalaren esku utziko duen aurrekontu zatia kalkulatzeko formula bat zehaztu da. Formula horren arabera, Debako Udalak urte bakoitzean onartzen duen aurrekontuari proportzio bat aplikatuz erabakiko da Auzo-Udalari dagokion aurrekontua. Beste modu batera esanda, **Itziarriko Auzo-Udalaren aurrekontua, Debako Udalaren aurrekontuaren baitan egongo da**, Debako Udalaren aurrekontuak, urte batetik bestera behera egiten badu, Itziarriko Auzo-Udalarenak ere behera egingo luke.

Aipatutako irizpideak Debako Udalaren 2013ko aurrekontu onartuarekiko aplikatuz, lortutako azken emaitza **739.092,63 eurokoa** da (Debako Udalaren aurrekontu osoaren %11,27). Zera esan nahi du horrek, Itziarriko Auzo-Udalak, behin eratu eta lehen 12 hilabeteko jardunerako, 739.092,63 euroko aurrekontua ziurtatu behar duela, lehen urte horri dagozkion eskumenak eta zerbitzuak behar bezala kudeatu ahal izateko.

Deszentralizazio prozesu honek ez du Debako Udalaren ohiko diru-sarreretan inolako eraginik izango. Debako udalerrri osoari dagozkion zerga, tasa eta transferentzien diru-sarrerak bermatuta daude Debako Udalarentzat. Ondorioz, Debako Udalak egungo diru-sarrera berak izango ditu.



“Debako Udalak oraingo diru sarrera eta finantziario iturri guztiak mantenduko ditu, baita Auzo-Udaleko eremuari dagozkionak ere”.



Itziarko Auzo-Udalak, Debako Udalak eginiko diru-transferentziarekin finantzatuko ditu berari dagozkion eskumenak, eta Debako Udalak, berriz, gaur egun egiten duen zerbitzu horien ordainketak egiteari utziko dio.

Itziarko Auzo-Udala, Deba udalerriaren barneko entitate deszentralizatu bat izango da, eta Debako Udalarekin koordinazio lan estua eta elkarlan eraginkorra ziurtatu behar ditu herritarren mesederako. Itziarko aurrekontu publikoak Itziarko Auzo-Udaletik kudeatzera igarotakoan, Debako Udalaren gaur egungo gastu-maila ahalik eta gutxien igo eta gailentzea ahalik eta txikiena izan dadin, honako neurriak hartu dira:

- Debako Udalak gaur egun dituen giza baliabideak, baliabide teknikoak zein materialak optimizatu eta partekatzeko neurriak.

- Eskumenen eta horiei dagozkien baliabideen eskualdaketa Debako Udaletik Itziarko Auzo-Udalera modu progresiboan egitea, alde bien arteko adostasun batera iritsiz.

Auzo-Udalaren eraketak lehen urtean eragingo lukeen gailentzea ekonomikoa 40.000 euro ingurukoa izan daitekeela aurreikusitako da, Debako Udalak 2013rako onartutako gastu korrontearen % 0,6.

Hauteskundeetako 5/85 Lege Organikoari jarraiki, Itziarko bizilagunen Batzordea, Auzo-Alkatea eta beste 4 batzordekideek osatuko dute. Auzo-Alkatea, Toki Entitateko herritarrek aukeratuko dute zuzenean, alderdi, federazio, koalizio edo hautesle elkarteetako hautagaiak aurkeztu ondoren, eta gehiengoaren sistema bitartez. Batzordekideen izendapena berriz, udal hauteskundeetan Itziarko eremuari dagokion sekzioan alderdi politikoek izandako emaitzen arabera egingo da.

Itziarko Auzo Batzordeko juntakideak guztira 5 izango badira ere, horiez gain, auzo ezberdinetako beste 7 juntakide ere Itziarko Auzo Batzordean eta Batzorde horren lan-talde ezberdinetan parte hartzea proposatzen da. Juntakide horien izendapena, Auzo-Alkatea aukeratzeko aplikatutako gehiengoaren sisteman, botorik gehien eskuratu dutenak kontuan hartuta, egingo litzateke.

Auzo-Udala eratzen denetik hurrengo udal hauteskundeetara bitartean, **batzorde kudeatzaile** batek zuzenduko du erakunde berria. Batzordekideak Foru Aldundiak izendatuko ditu hauteskundeetako arautegi erabilgarrian xedatutakoaren arabera.

Auzo-Alkatea eta Auzo-Udalaren kudeaketan parte hartuko duten beste 7 juntakide ere, auzotarrek bozka bidez zuzenean aukeratutako pertsonak izango dira.